



# HORNITZAILEEN ESKULIBURUA


2023/06/08 (Ber. 05)

## 1. SARRERA

**SPRI-AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL**, Eusko Jaurlaritzak 1981ean sortutako enpresa garapenerako agentzia da, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren (EGLS) menpe dagoena eta helburutzat duena euskal enpresa sarea babestu eta bultzatzea, eta, bide horretatik, bere lehiakortasuna eta merkatu globaleko posizionamendua hobetzea.

### Jarduera-ildo estrategikoak

Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programak (2017-2020) finkatzen du SPRIren 2018ko Kudeaketa Planaren esparru orokorra.



Esparru-programa hori zehazteko, SPRIk honako plan estrategiko hauek ditu:

- 2017-2020 aldirako Industrializazio Plana;
- 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana;
- 2017-2020 aldirako Nazioartekotze Plana;
- Enplegu Plana; ➔ 2017-2020 aldirako Ekintzailtza Plana.

Horrez gain, zeharkako estrategia dauka abian ipinita:

- Euskadi 2020 Agenda Digitala.

Horretarako, bere laguntza eskaintzen du **ENPRESA SUSTAPEN, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA, ETA NAZIOARTEKOTZE** arloetan. Eta **LAGUNTZA ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUEK** eta **IDAZKARITZA NAGUSIAK** operazio guztiak sostengatzen dituzte, Antolakundeak behar bezala funtzionatu dezan eta euskal enpresa sareari zerbitzu egokia eman diezaion.

### **Eginkizuna:**

EAEko enpresak babestea, sustatzea eta beren lehiakortasuna handitzen laguntzea, modu horretan Euskadin aberastasuna sortu eta herritarren ongizatea giza garapen iraunkorraren bitartez hobetzeko, Eusko Jaurlaritzaren ekonomiaren sustapenerako politikaren esparruan, betiere.

### **Ikuspegia:**

EAEko enpresak ekonomikoki garatzean eta beren lehiakortasun-maila handitzean ekarpenak egiten dituzten jardueren erreferente izatea.

### **Balioak:**

- **Hurbiltasuna:** Irigarria izatea eta tratamendu pertsonalizatua ematea gure zerbitzuak eskatzen dituzten enpresa guztiei..
- **Zuzentasuna:** SPRIren kode etikoa aplikatzea gure jarduera guztietan..
- **Gardentasuna:** Gure barne- zein kanpo-jarduera guztien berri ematea, fideltasunez..
- **Berrikuntza:** Etengabeko hobekuntza, sortzen diren beharrei hobeto egokitzeko..
- **Gizarte-konpromisoa:** Gure jarduerak ahalik eta gizarte-onurarik handiena eragiteko xedez gauzatzea, eta horretarako baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea.

### **BIKAINASUN-POLITIKA:**

SPRIk **kalitatearen** eta **etengabeko hobekuntzaren** konpromisoa hartu du bikaintasunerako erreferentziatzat eta hiru helburutan zehatu du: kalitatea gure kudeaketan, kalitatea gure programa eta zerbitzuetan, eta gure interes-taldeen gogobetetzea.

Horretarako, SPRIk konpromisoa hartu du **Gobernu Korporatiboko** praktikak aplikatzeko Administrazio Kontseiluaren eta kudeaketa-taldearen funtzionamendu eta lan ona bermatzeko, oinarrizko erreferentziatzat harturik onartuak dauden Administrazio Kontseiluaren Araudia eta Jokabide Kode Etikoa.

Era berean, **Compliance eta Barne Kontrolerako** sistema bat ezarri da gure helburu orokorrak eta legea betetzen direla bermatzeko, eta barne-prozedurak abiarazi dira SPRIren negozioiak eta jardunak berekin dakartzaten arriskuak minimizatzeko.

Gure zerbitzuen Kalitatea estuki lotuta dago erantzukizunez eta profesionaltasunez lan egiten duen **giza taldearen** kalitatearekin. Talde horren helburua da gure zerbitzuen kalitatea lortzea, mantentzea eta hobetzea, balio erantsia emanez eskainitako zerbitzuari. Giza taldearen garapena printzipio hauetan oinarritzen da: aukera-berdintasuna eta bazterkeriarik eza edozein esparrutan. Horretarako, SPRIk konpromisoa hartu du jarrera gatazkatsuak eta/edo jazarpenezko jarrerak prebenitzeko eta gerta daitezkeen kexei aurre egiteko.

Gure **hornitzaileak** gure zerbitzuen funtsezko zati bat dira eta eragin zuzena dute gure bezeroen gogobetetzean. Beraz, elkarrekiko konfiantzan, beharrezkoa den gardentasunean eta tratu-berdintasunean oinarritutako harremanak sortzen dira.

**Ingurumenaren** kudeaketa helburu estrategikoa da SPRIrentzat eta horregatik ahalegina egiten dugu baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko, gure jarduerak ingurumenean eragiten dituen inpaktuak ebaluatzen ditugu inpaktu horiek prebenitzeko, desagerrarazteko edo minimizatzeko, eta legezko ingurumen-baldintza guztiak nahiz sinatutako beste edozein baldintza betetzen ditugu.

SPRIren Zuzendaritza bere langileen **segurtasunaz eta osasunaz** kezkatzen da; kezka horri erantzunez, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legean ezarritako arauak beteko ditu eta, betetze hori aprobetxatuz, ahalik eta gehien hobetuko ditu gure langileen lan-baldintzak.

SPRIren **Gizarte Erantzukizunaren** xedea da gure jarduera modu eraginkorrean garatzea, ahalegina eginez eskura ditugun baliabideak optimizatzeko, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-arloetan sostengarri izateko, eta gardentasunez komunikatzeko, hau da, gure jarduerari buruzko informazio garrantzitsua eta egiazkoa eskaintzeko.

Eta hori guztia helburu hau lortzera bideratuta dago: SPRIren Ikuspegia eta Misioa gauzatzea eta emaitza bikainak lortzea, politika eta estrategia, erakundeko pertsonak, baliabideak eta prozesuak bultzatu eta zuzenduko dituen lidergoaren bitartez.

### **Hizkuntz normalizazioa**

2014az geroztik, SPRIk **Euskara Plan** bat du Eusko Jaurlaritzako Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Planari jarraiki. Plan horrek Sozietatearen jardura guztietan du eragina eta, beraz, baita ere hornitzaileekiko harremanetan. Zentzu horretan, SPRIk euskararen presentzia bermatzen du hornitzaileen homologazioan, hornitzaileen ebaluazioan, lehiaketa publikoetan / lizitazioetan eta eskaintzetako eskaeretan.

## **2. HELBURUA ETA IRISMENA**

SPRIko hornitzaileei adieraztea zeintzuk diren erakundearekiko harremanetan bete behar dituzten baldintzak, kontuan har ditzaten alderdi bien artean ematen diren jardura komertzial guztietan.

Hornitzaileekiko harreman komertzial guztietan aplikatuko da.

## **3. HORNITZAILEAK HAUTATZEA ETA HOMOLOGATZEA**

Zerbitzu bat kontratatu edota produktu bat erosi behar duen pertsonaren ardura da hornitzaileak hautatzea, eta kontratazio eta erosketa horiek hainbat modutara egin daitezke Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean, azaroaren 8koan, ezarritako kontratu-mailen arabera.

Behin hornitzailea hautatu eta gero, erosketa-sailari horren berri emango zaio, SPRIren hornitzaileen datu-basean sartzeko.

Homologazioa informazioaren balioeste-prozesu bat da, hornitzailearen erakundearen nahiz beren lehen produktu eta zerbitzuen informazioarena, hain zuzen, eta prozesu horren bidez onartzen da hornitzaile hori SPRIri zerbitzua emateko gaituta dagoela.

Homologazio prozesua amaituko da lehenengo hornikuntza edo zerbitzu eskaera ongi betetzen denean.

Homologatu ondoren, hornitzailea eta bere produktu/zerbitzuak ebaluatuko dira. Hornitzaileak ebaluazio negatiboren bat jasotzen badu, aukera dago hornitzailea deshomologatzeko, hau da, SPRIren hornitzaileen datu basetik ateratzeko.

## 4. HORNITZAILEAK EBALUATZEA

Produktu eta zerbitzuak eskatzen dituztenek ebaluatuko dute eskatutako zerbitzua edo produktua. Etengabeko Hobekuntza Sailak koordinatuko du ebaluazio hori.

Ebaluazio horretan agerian jartzen dira eskaintzen diren produktu eta zerbitzuetan, entrega epeetan, eta abarretan izandako intzidentziak. Era berean, kontuan hartzen dira alderdi positiboak, esaterako hasierako igurikapenen hobekuntzak.

Ebaluazioa negatiboa bada, gerta liteke berehala deshomologatzea.

## 5. LEHIAKETA PUBLIKOAK - LIZITAZIOAK

### ▶ Lizitazioak argitaratzea

SPRIk 15.000 €-ko edo hortik gorako ondasun- eta/edo zerbitzu-hornidura behar duenean, nahitaez argitaratu behar da horri buruzko deialdia webguneko kontratatzailearen profilean, bai eta Eusko Jaurlaritzaren lizitazio-plataforman ere.. Kontratazio horretan interesatuta daudenek baldintzen plegua deskargatu beharko dute, eskaintzak bidal ditzaten bertan adierazitako epearen barruan.

### ▶ Eskaintzak entregatzea

Lizitazio eskaintzak epearen barruan aurkeztu behar dira, baldintzen pleguan adierazitako formatuan eta bertan eskatutako dokumentazio guztiarekin batera.

### ▶ Adjudikazioa

Eskaintzak jaso ondoren eta hautatutako kontratazio prozeduraren arabera, Kontratazio Mahaia deitzen da, dokumentazioa aztertu dezan.

Kontratazio Mahaia dokumentazio hori sailkatu eta Kontratazio organoari aurkezten dio, azken hori izango delarik esleipena erabakiko duena eta “Esleipen txostena” emango duena.

Erosketa sailak argitaratuko du esleipenaren emaitza web orriko *Kontratugilearen profilean*.

## 6. ESKAINTZA ESKAERAK

SPRIk ondasun edota zerbitzu hornikuntza bat behar duenean eta horretarako lizitazio deialdirik egiteko premiarik ez dagoenean, lehenik eta behin homologatutako hornitzaileen datu basera joko du, baina ez du baztertuko hirugarren batzuen zerbitzuak eskatzea.

## 7. ENTREGATZEA

Oro har eskaeran edo hala badagokio kontratuan adierazitako epean, tokian eta baldintzetan egingo da entrega.

## 8. FAKTURETAN SARTU BEHARREKO DATUAK

Fakturetan sartu beharko dira datu hauek:

- Fakturaren data
- Faktura zenbakia
- Igorlearen eta hartzailearen izena eta IFK. Igorlearen erregistro datuak.

Produktu/zerbitzuen zerrenda eta azalpena, bertan adieraziz zenbateko garbia (BEZ gabe), aplikatu beharreko BEZ tasa eta zenbatekoa BEZ barne

Tramiteak arintzeko, komeni da ahal den guztietan fakturari dagokion eskaera zenbakia sartzea.

Fakturak oro har transferentzia bidez ordainduko dira jaso eta 30 egunen buruan.

Faktura guztiak zuzendu behar izango dira

**SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA,**  
Urkixo Zumarkalea\_Alameda Urquijo, 36-4º  
48011 Bilbao.  
(IKF: Q4800789B).

## 9. ALDAKETAK HOMOLOGATZEKO EMANDAKO DATUETAN EDO ATXIKITAKO DOKUMENTAZIOAN

Hornitzaileak konpromisoa hartzen du SPRIri eman beharreko informazio eta dokumentazio guztia egunean jartzeko, arazorik egon ez dadin eskaerak tramitatzean. Baldin eta SPRI ohartzen bada informazio edo daturen bat ez dela garaiz bidali edo ezkutatu egin zaiola, hornitzaile hori datu basetik ezabatzeko eskubidea izango du.

## 10. DATUAK BABESTEKO ETA KONFIDENTZIALTASUNEN KLAUSULAK

- **15.000 € baino gutxiagoko kontratuak**

### Tratamenduaren arduradunaren argibideak

HORNITZAILEAK, SPRIk hala eskatuta, datu pertsonalak tratatzen dituen kasuan, kontratuaren helburua betetzeko soilik erabiliko dira datu horiek. Gainera, informazio hori SPRIren argibideen arabera tratatuko da.

Emandako datuok kontserbatuko dira harreman komertziala dagoen bitartean edo legezko, merkataritzako eta zergatako betebeharrak betetzeko nahitaezkoak diren urteetan.

### Konfidentzialtasun-betebeharra

Kontratu hau gauzatzeko Aldeek eskura izango duten informazio guztia konfidentziala da, eta Kontratua betetzeko helburuetarako (hemendik aurrera "Informazio konfidentziala") bakarrik erabiliko da.

Aldeak behartuta daude Informazio Konfidentzialari buruzko sekretua gordetzeko eta hirugarrenei ez emateko, beste aldeak idatzizko baimena aurretik eman ezean, eta dagozkien lanak betetzen dituztela bermatzeko informazio hori jakin beharra duten langile, agente, ordezkari edo aholkulariak dira salbuespen bakarra.

HORNITZAILEAK bermatzen du datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsona guztiek espresuki konpromisoa hartu dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko, eta sekretu-betebeharrari eutsiko diotela, baita kontratuaren helburua amaitu eta gero ere. Betebehar hori betetzearen froga dokumentatuta dago eta SPRIren esku dago.

Datuak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, eta salbuespen bakarra izango da SPRIk horretarako baimena espresuki ematea.

Klausula honetan ezarritako konfidentzialtasun-betebeharrak lagako dira (i) edozein administrazio-errekerimendu edo errekerimendu judzialen edo kontrako lege-aginduren aurrean, (ii) Informazio Konfidentziala jabetza publikokoa den kasuan, (iii) Kontratu hau baino lehenagotik ezaguna den kasuan, (iv) konfidentzialtasun-betebeharra egokitzen ez zaien hirugarren alde batetik jaso den kasuan, edo (v) informazioa ematen duen Aldeak aurretiaz eta idatziz datuak transmititzeko baimena eman duen kasuan.

Klausula honetan ezarritako betebeharrak indarrean jarraituko dute baita kontratu hau ebatzi eta gero ere, arrazoa edozein izanik.



### **Segurtasun-neurriak**

HORNITZAILEAK espresuki adierazten du hartu dituela beharrezko neurriak eta mekanismoak ezarri dituela hauek lortzeko:

- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko.
- Gorabehera fisiko edo tekniko bat gertatzen den kasuan, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta haietarako sarbidea ahalik eta lasterren berrezartzeko, ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik.
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarri diren neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko.
- Datu pertsonalak goitizen bihurtzeko eta zifratzeko, hala dagokionean.

### **SPRIrekin lankidetzan, betetzea frogatzeko**

HORNITZAILEA SPRIrekin lankidetzan arituko da, eta haren eskuetan jarriko du datu pertsonalak babesteari dagozkion betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar beste informazio, hala dagokionean.

### **Azpikontrazio-erregimena**

HORNITZAILEAK konpromisoa hartzen du kontratu honen helburua diren eta datu pertsonalen tratamenduari dagozkien prestazioetako bat ere ez azpikontratatzeko, salbu eta haren zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoak diren zerbitzu osagarriak.

Tratamenduren bat azpikontratatu beharra izango balitz, aurretiaz SPRIri jakinarazi behar zaio idatziz 10 egun baliodun baino lehen, eta azaldu behar du zer tratamendu azpikontratatu behar dituen eta modu argi eta garbian identifikatu behar ditu azpikontratatuak enpresa eta bere kontaktu-datuak. Azpikontratazioa egin ahal izango da, baldin eta, adierazitako epean, SPRIk kontrako iritzia ematen ez badu.

Azpikontratatuak tratamenduaren arduradun-maila izango du baita ere, eta, halaber, behartuta dago dokumentu honek tratamenduaren arduradunentzat ezartzen dituen betebeharrak eta SPRIk ematen dituen argibideak betetzera.

HORNITZAILEARI dagokio (hasierako arduradun gisa) arduradun berriarekin dagoen harremana erregulatzea, hornitzaileak berak dituen kondizio (argibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak...) eta betebeharrak formal berdinen mende egon dadin datu pertsonalen tratamendu egokiari dagokionez eta horrek eragiten dien pertsonen eskubidea bermatzeari dagokionez.

Azpiarduradunak betebeharrak horiek betetzen ez dituen kasuan, HORNITZAILEAK arduraduna izaten jarraituko du betebeharrak betetzeari buruzko arduradunaren aurrean.

### **Datuen helburua harremana amaitzerakoan**

HORNITZAILEAK konpromisoa hartzen du lan-eskaera honen ondorioz tratatzen dituen datu pertsonalak suntsitzeko, zerbitzua amaitu eta gero. Hala ere, behar bezala blokeatutako kopia bat gordetzeko idatzizko baimena eskatu beharko du, emandako zerbitzu hori gauzatzetik ardurak erator daitezkeen bitartean.

- **Lizitazioak**

**Datu pertsonalen tratamendua.**

1.- Datu pertsonalen tratamendutzat hartzen da datuak jasotzeko, grabatzeko, gordetzeko, lantzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezeztatze aukera ematen duen edozein operazio eta prozedura tekniko (automatizatua edo ez), bai eta komunikazioetatik, kontsultetatik, interkonexioetatik eta transferentzietatik sortzen diren konexio-datuei dagokienez ere, pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei dagozkien edozein informaziori eragiten dienak.

Izatera pertsonaleko datuak tratatzeko edo horietara sarbidea izateko aukera sartzen bada kontratuan, SPKLren 25. xedapen gehigarrian ezarritakoaren mende egongo da, eta Datuen Babeserako (EB) 2016/679 Araudi Orokorra bete beharko da. Gainera, Esleipendunak, bai eta azpikontratatuak eta gauzatzeari lotutako langileek ere, datu pertsonalen tratamenduari buruz kapitulu honetan xedatutakoa bete beharko dute.

2.- Aldeen artean datu pertsonalen trukea egongo balitz, haien tratamendua aplikagarria den legedian xedatutakora egokituko da uneoro. Zehazki, datu pertsonalak babesteari dagokion eta indarrean dagoen legediak interesdunei eta eragiten dietenei esleitutako eskubide guztiak betetzen direla bermatuko da, bere datu pertsonalak tratatzen zaizkion edozeinek eskubide horiekiko egin duen edozein eskaera barne, legez eskatutako denbora-tartean eta forman.

3.- Esleipendunaren langileek, eta kontratatutako zerbitzuak ematen diren bitartean baita SPRIri lotutako hirugarrenek ere, SPRIren ardurapekoak diren informazio edo datuetara sarbidea badute edo izango balute, dagokion konfidentziasuna edo sekretu profesionala izan dezatela eskatzen da. Hori dela eta, Esleipendunak hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

3.1.- Langileei sekretu- eta konfidentziasun-betebeharraren berri ematea, eta, zehazki, ziurtatzea langileek ez dituztela argituko, jakinaraziko edo hirugarrenen eskura jarriko kontratu honen aurretik, irauten duen bitartean edo ondoren ezagutzen edo lortzen diren datuak. Horri dagokionez, Esleipendunak nahiz harreman hauetan agertzen diren langile guztiek idatziz hartu beharko dute konpromisoa tratatutako datuekiko sekretu profesionala gordeko dutela ziurtatzeko.

3.2.- Kontratuak eragiten dien langileei haiek hartu beharreko segurtasun-neurriak eta SPRIk proposatzen dituen argibideak modu frogagarrian uneoro jakinaraztea, informatikako baliabideak erabiltzeari, instalazioetako segurtasunari, informaziorako sarbideari eta dokumentuen zaintzari dagokionez.

3.3- Langileen baimena lortzea, SPRIk beren datuak aipatu bezala tratatu ditzan, salbu eta indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera baimen hori beharrezkoa ez denean.

3.4- Lanak hasi aurretik, datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, funtzioak eta lana egingo den tokiak azaltzen dituen zerrenda ematea kontratuaren arduradunari. Kontratua gauzaten ari den bitartean langile berriak sartu beharko balira, haien datuekin osatutako zerrenda berria eman behar da, langile berriak lanean hasi eta astebeteko epean gehienez.

4.- SPRIk bere sistema informatikoetarako sarbidea ematen duen kasuan, kontratu honetan zehaztutako zerbitzuak egiteko behar diren aurretiazko prozedurekin eta baimenekin bat eginez, esleipendunak konpromisoa hartzen du informazio hori baldintza-agiri honetan jasotako helburuak ez diren beste batzuetarako ez erabiltzeko, baita ez erazteko, emateko,

argitaratzeko edo saltzeko ere, guztia edo zati bat, ez euskarri informatikoan ezta paperean ere, eta, behin lana amaitu denean, emandako informazio-euskarri guztiak itzultzeko eta ekipo informatikoetatik deskargatzeko (halakorik balego).

- 5.- Esleipendunak bere gain hartu beharko ditu konpromisoak eta lan honetarako sarbidea izango duen informazio-sistemei dagozkien segurtasun-arauak betetzeko ardura, indarrean dagoen legediaren arabera. Enpresa eta lan-taldea espresuki behartuta egongo dira konfidentzialtasun eta diskrezio osoa izatera, kontratua betetzeagatik jakin dezaketen edozein daturi buruz, bereziki datu pertsonalak diren kasuan, eta ezingo dira datuok kopiatu edo erabili baldintza-agiri honetan azaltzen den helburua ez den beste edozertarako, eta, halaber, ezingo dizkiete beste batzuei eman, ezta kontratu-harremana amaitu eta gero gordetzeko ere.

Horri dagokionez, datuetarako sarbidean arretarik handiena jarri behar da. Gai honi lotutako edozein arau-hauste larritzat joko da eta kontratua eteteko arrazoia izango da, alde batera utzi gabe bere gain hartu beharreko edozein ardura penal edo bestelako.

- 6.- Esleipenduna derrigortuta dago Datuen Babeserako (EB) 2016/679 Araudi Orokorrean ezarritakoa betetzera. Halaber, onartzen du SPRIk eskubidea duela edozein unetan eta arazoizko modu batean jakinarazi eta gero, esleipendunaren instalazioetara edo sistemetara sartzeko, haiek ikuskatzeko edo aztertzeke —bai SPRIk berak bai azken horrek izendatutako hirugarren batek—, datuak babesteari dagozkion betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeke. Horri dagokionez, esleipendunak arazoizkoak diren bitarteko eta laguntza guztiak eskainiko ditu, ikuskapena, auditoretza eta/edo ikerketa behar bezala egiteko.

- 7.- Tratatu behar diren datuen izaeragatik kontratuaren arduradunak hala erabaki duen kasuan, kontuan hartuta pertsonen eskubideei eta erabilitako teknologiei dagokienez egon daitezkeen arriskuak eta interesdunen eta tratatutako datuen jabeen eskubideak eta askatasunak arriskuan jartzea eragin dezakeen kontratuaren gauzatzearen edozein alderdi, kontratuaren arduradunak hauek emango dizkio esleipendunari: tratatutako datuen espezifikazioa duen tratamendu-arduradunaren kontratua, tratamenduaren helburuak, beharrezko segurtasun-neurri teknikoak eta antolamendu-neurriak, aipatu Araudian eskatzen diren gainerako betebeharrak eta kontratua gauzatzeko aplikagarria den datuak babesteko araudia. Nahitaezko baldintza da, hala dagokionean, Esleipendunak tratamendu-arduradunaren kontratu hau sinatzea kontratua esleitzen den unean.